

## PRENTSA OHARRA

# 100 talde baino gehiago arituko dira Espainiako Gimnastika Erritmiko Txapelketan

Abenduaren 13tik 16ra Nafarroa Arena honako motako ekitaldiaren eszenatokia izango da lehendabiziko aldiz.

**Iruñean, 2018ko abenduaren 11n.** Nafarroa Arena gimnastika erritmikoaz blai egonen da ostegun honetatik, hilak 13, lehiatuko den 'Divina Pastora' Taldekako Espainiako Gimnastika Erritmiko Txapelketari esker. 15 federazioko 104 klubek bisitatuko dute Nafarroa, eta tapizaren gainean arituko diren artean, 5 klub nafar izango dira. Guztira, 1300 kirolari bilduko dira (gimnastak, delegatuak, teknikariak eta epaileak kontuan izanda). Haiekin batera arituko dira Nafarroako Gimnastika Federazioko eta Asvonako 150 pertsona antolakuntzan.

Gimnastek 6 kategoriatan lehiakatuko dute: Benjamin, Kimu, Haur, Junior, Senior eta Lehenengo kategoria.

Gauzak horrela, Estatu mailako lehenengo kirol ekitaldi nagusia izango da Nafarroa Arenan, non gimnastikako eta beste kiroletako ekitaldiak antola ditzakela erakusteko nahian daude. Espero da Iruñeak eta eskualdeak 6000 egonaldi eta 1,22 milioi euroko inpaktua izatea.

Jesus Carballo Espainiako Gimnastika Errege Federazioko presidentea, Josu Ros Nafarroako Gimnastika Federazioko presidentea, Ana Herrera Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak eta Moncho Urdiain Nafarroa Arenako zuzendariak parte hartu dute gaur paibilioiko pista nagusian izandako aurkezpenean. Nafarroako Gimnastikako maskota Pandi-k lagundu die.

Espainiako Gimnastika Errege Federazioak eta Nafarroa Arena taldeko NICDO-k txapelketa sustatu dute Nafarroako Gimnastika Federazioaren laguntzarekin. Modu berean, Miguel Indurain Fundazioak eta Nafarroako Gobernuak Turismo sailak lehiaketa babesten dute. Modu honetan, instituzioen eta bertako enpresen laguntzari esker, Nafarroak eta Iruñak gimnastak eta haien familiak jaso ahalko dituzte. Gainera, biztanle nafarrek ongi etorria prestatu dute pabilioia 10 esaldirekin dekoratzen.

Abenduaren 13an (osteguna) atea itxitako entrenamendu ofizialak izango dira eta 14an eta 15ean taldeen emanaldiak ikusi ahalko dira. Azkenik, igandean, hilak 16, finalak gozatuko ditugu goizetik.

Ostiralerako sarrerek 10 € balio dute, larunbatekoak 10 eurokoak dira eta igandekoak 12 eurokoak (10€ Osasuna-ko bazkideentzat). 3 egunetarako abonoak 28€ balio du. Honetaz gain, abenduaren 14an, ostiralean, txapelketaren inaugurazio ofiziala izango da 18:00etan, eta larunbatean, hilak 15, junior kategoriako talde nazionalak erakustaldi bat protagonizatuko du. Talde honek urrezko domina irabazi zuen El Cairo-ko (Egipto) Heliopolis Txapelketa Internazionalan.

Sarrerak salgai daude Nafarroa Arena-ko web-orrian ([www.navarrarena.com](http://www.navarrarena.com)) eta Baluarteko lehiatiletan. Abenduaren 13tik 16ra pabilioiko lehiatiletan ere eskuratu ahalko dira.

Txapelketari buruzko informazio osoa kontsulta daiteke Espainiako Federazioko eta Nafarroako Federazioko webgunetan, eta Navarra Arenako <https://www.navarrarena.com/bienvenidas> microsite-n. [#GRPamplona18](https://www.navarrarena.com/bienvenidas) hashtag ofiziala da.



### **Nafarroa Arena: imaginatzen duzun baino askoz gehiago**

Nafarroa Arena Nafarroako erabilera anitzeko kiroldegia da. Iruñean dago eta mota askotako ekitaldiak hartu ditzaken pabilioia da. Guztira, 11800 pertsona jaso ahal ditu. Modu berean, instalazio aproposa du zinema eta publizitate filmatzeak izateko, bere teknologiari esker, efizientea delako.

### **Informazio gehiago:**

Diana González  
d.gonzalez@nicdo.es  
www.navarrarena.com  
948066200